

BENETAKO ZORIONA EZ DA DIRURIK KOSTATZEN



2017/2018

LEHEN
HEZKUNTZA

BALIATU ZEURE AISIALDIA BENETAN AXOLA DUENERAKO
Zeuk irabaziko duzu, planetak irabaziko du, denok irabaziko dugu



GIZARTE ZIENTZIAK - 4. 5. eta 6. Ikasturteak

AISIA EZ KONTSUMISTA

“Jolaserako eskubidea... baina gogaitu gabe”



Bouakeko (Boli Kosta) neskato-mutikoak Boluntarioekin jolasean. Iturria: SED Artxiboa

IRAKASLEAREN FITXA

Helburuak

1. Kontzientziaturik egotea nola gure aisia produkzio eta kontsumo zirkuluetan sartzen den eta nola horrexegatik eragin negatiboa izan dezakeen pertsonen baitan eta ingurumenean.
2. Beste aisia aukera arduratsu batzuk sustatzea.

Edukiak

KONTZEPTUAK	PROZEDURAK	JARRERAK
<ul style="list-style-type: none"> • Aisia eta produkzio eta kontsumo sektore ekonomikoak • Herrialde aberatsetako aisiaren behartsuen pobrezia arteko lotura • Injustizia eragiten duen kontsumoa: ingurumenaren eta Hegoaldeko herrien aurkako kalteak. • Beste aisia aukera batzuk 	<ul style="list-style-type: none"> • Aisiari eta kontsumoari dagozkion irudien analisia. • Kontsumo arduratsuari buruzko testuen analisia. • Eskema sintetikoaren moldaketa [kausak eta ondorioak] • Taldeka landuriko gai eta konklusioen aurkezpena [hormairudiak, kartelak]. 	<ul style="list-style-type: none"> • Sentikortasun soziala gure kontsumismo konpulsiboak herrialde pobretuetan dituen ondorioen aurrean. • Jarrera kritikoa kontsumitzailearen jokabidearen aurrean. • Mobilizazioa bestelako jolas jarduera batzuen garapenerako.

Konpetentzien araberako programazioa

KONPETENTZIA	XEHETASUNA	JARDUERAK
<i>Komunikazio linguistikoa</i>	Testu mota desberdinen eta berauen egitura formalen erabilpena.	1, 3, 5
<i>Matematika</i>	-	-
<i>Ingurune fisikoaren ezagutza eta beronekiko elkarreragina</i>	Bestelako aisialdi mota baterako espazio zabalen eta/edo naturalen erabilpena.	5
<i>Digitala eta Informazioaren erabilpena</i>	Produkzio eta kontsumoko sektore ekonomikoari buruzko informazioaren bilaketa eta hautaketa gidatua, eta gure kontsumismoak sorrarazten dituen bidegabekeriak.	1
<i>Gizartea eta herritartasuna.</i>	Irakurketa beste errealitate batzuen ezagutza eta ulerkuntzako iturri gisa. Hizkuntzaren erabilpena, kontsumismoak pertsonen eskubideen arloan duen inpaktuaren aurrean kontzientziatzeko baliabide gisa.	1, 3
<i>Kulturala eta artistikoa</i>	Hormairudiak eta kartelak sortzea.	1
<i>Ikasten ikastea</i>	Sintesi lanak gauzatzea.	1, 2, 3, 5
<i>Autonomia eta ekimen pertsonala</i>	Talde lanetan inplikatzeko [ekimena, partaidetza]. Elkarrizketa, jarduera arautzeko era gisa.	1, 5

Denbora banaketa

A SAIOA	B SAIOA	C SAIOA
<ul style="list-style-type: none">• 1. Jarduera• 2. Jarduera• 3. Jarduera	<ul style="list-style-type: none">• 4. Jarduera• 5. Jarduera	<ul style="list-style-type: none">• 5 Jarduera [bestelako jolasen eguna

Materialak

- Aisialdi eta kontsumo axolagabeari buruzko testuak eta irudiak: Hainbat iturri [adierazi egin behar dira orrialdearen oinean].

UNITATEAREN GARAPENA

1. Jarduera. Mintza daiteke kontsumo axolagabeaz?

- Irakur ezazu ondoko albistea, El Economista¹ egunkarian agertu zena:

Kontsumo axolagabeak ondorio negatiboak dauzka baliabide naturaletan

Madril [EUROPA PRESS] Kontsumo konpultsiboak ondorio negatiboak dauzka Hegoaldeko herrientzat, hala adierazten du WWF mundu erakunde kontserbazionistak bere txosten batean. Ohitura hauekin jarraituz gero, bost planeta beharko omen lirateke gizateria guztiaren premiei erantzuteko.

Adituek gizateria ohartarazi nahi dute beren erosketek ingurunearen endekapenean eta planetaren beroketan daukaten eraginari buruz. Adibidez, Asian fabrikaturiko ordenagailu bat, Estatu Batuetan edo Europan 200 edo 250 dolarrean erosten dena, oso litekeena da Indonesiako oihanen legez kontrako baso mozketaren emaitza izatea.

Bidegabekeria horrek erakunde kriminalak sustatzen ditu, bioaniztasuna suntsitzen du, karbono dioxido kantitate handiak jaurtitzen ditu atmosferara, eta lurren galera suposatzen du lekuan lekuko biztanleriarentzat.

Horregatik guztiagatik, ezinbestekoa da pertsonak ingurunearekiko eta gizartearekiko kontzientziadun kontsumitzaile bihurtzea.

Edo gauza bera dena, biziraupenerako beharrezko ez diren gauza gutxiago eros ditzatela eta, aldi berean, prest egon daitezela gehiago gastatzeko naturari edota beste herrialde batzuetako biztanleei kalterik egiten ez dieten produktuetan.

Talde lana:

- Imajina ezazue telefono mugikor bat edo tablet bat erostera zoaztela. 4-5 laguneko taldetan antolaturik, egizue hormairudi bana, bertan azalduz zer gertatzen den herrialde batean lehen gaiak lortzen direnetik, beste herrialde bateko denda batean azken produktua salgai agertzen den arte. Bila ezazue informazio gehigarria Interneten maisuaren edo andereñoaren laguntzarekin.


Gogoetarako galderak:

- Zer esan nahi du “kontsumo konpultsiboa” adierazpenak?
- Goiko albistearen arabera, zer ondorio dauzka naturan kontsumo axolagabeak?
- Eta zer ondorio dauzka kontsumo axolagabeak herrialde pobretuetako pertsonengan?
- Adierazi zeure hitzak erabiliz esaldi hau: “Ohitura hauekin jarraituz gero, bost planeta beharko lirateke biztanleria guztiaren premiak asetzeko”
- Zer ulertzen da “ingurune eta gizarte kontzientzia daukaten kontsumitzaileak” diogunean?

1 Unitate didaktikorako egokitua. Iturria: <http://www.eleconomista.es/mercados-cotizaciones/noticias/135177/01/07/RSC-El-consumo-irresponsable-tiene-consecuencias-negativas-sobre-los-recursos-naturales-segun-WWF-.html> (2007ko urtarrilaren 22a)

2. Jarduera. Aisialdi kontsumista

- Aztertu ondoko irudiak eta² eta erantzun galderai:



- Aipa ezazu zer jarduera gauzaten dituzten hurrek irudi batean eta bestean.
- Azaldu nola eboluzionatu duten denboran zehar hurren aisialdietako jarduerak.
- Ba al dauka zerikusiren bat aisia kontsumoarekin? Arrazoitu erantzuna.
- Zer zerikusi dauka irudiak aurreko albistearekin?
- Zure ustez, eduki al dezake eraginaren bat hurren garapenean aisialdiko jolas eta jokoetan gertatu den aldaketak?
- Nola definitu genezake "aisia kontsumista"?

² Unitaterako egokitua. Iturria: <https://coachingdelfluid.wordpress.com/2013/03/26/el-ocio-digital-nuevo-modelo-de-conducta-humana/>

3. Jarduera. Jolaserako eskubidea urratzen denean

Ba al zenekien...?

...Haurren eskubideen hitzarmenak “aitortzen duela hurrek eskubidea dutela atsedenerako eta dibertsiorako, adin horretan ohikoak diren jarduera jostagarri eta jolaserako, eta askatasunez parte hartzeko bizitza kulturean eta arteetan [art. 31]?”

BEHIN ERE JOSTATU EZ ZIREN HAURRAK

Ipuin baten izenburua dirudien hau munduko adin gabeko askok bizi duten errealitatea da beren egoera fisiko, familiar, ekonomiko edo politikoen ondorio gisa. Irakur itzazu arretaz ondoko albisteak³:

Neskatoak: mutikoek baino denbora eta askatasun gutxiago daukate, jolaserako, atsedenerako eta aisialdirako, etxeko lanetan lagundu behar dutelako, senide txikiagoak zaindu behar dituztelako, superproduktioagatik, instalazio egokirik ez dagoelako, edota beren bizimodua mugatzen dieten ideia kulturallengatik.

Pobrezia egoeran bizi diren neskato eta mutikoak: pobrezia mugatzen diete atsedenerako eta jolaserako daukaten eskubidea, lan egitera behartuak dardelako, etxean duten egoera desegokia delako, jolastokirik ez daukatelako, gune arriskutsuetan bizi direlako... Gurasorik ez duten edo kalean lan egin eta bizi diren haurrak dira bereziki zaugarrienak.

Mutiko eta neskato minusbaliatuak: jolasera, atsedenera, partaidetzara iritsi ahal izateko trabak direla eta, baztertuak geratzen dira eskolan, jolastokian, familian. Leku askotara heltzeko ezintasunaren ondorioz jasaten dituzten baztertze eta diskriminazio egoerak...


Komunitate indigena minoritarioetako mutiko eta neskatoak: arbuioak, biolentziak eta diskriminazioak eragotzi egiten diete parte hartu ahal izatea beren praktika kultural, erritual eta ospakizunetan, edota jolas eta kiroletan.

Neskato eta mutikoak hondamen natural eta gerretan: larrialdi egoeretan lehentasuna ematen zaie elikagaien banaketari, etxebizitzari, medikamentuei eta bigarren lekuan edo baztertuak uzten dira jolasa eta jarduera jostagarriak.

3 Bernard Vaan Leer Fundazioak Haurren Eskubideen Batzorderako eginiko Txostenetik egokitua. Iturria: http://www.uam.mx/cdi/pdf/p_investigacion/resumen_observacion.pdf

Osa itzazu honako jarduera hauek:

- Nola margotuko zenituzke mutiko eta neskato horien aurpegiak? Zergatik?
- Nola uste duzu sentituko direla? Zure ustez, eraginik izango ote du horrek beren garapen eta hazkuntza pertsonalean [fisikoa, emozionala, intelektualala]?
- Antola itzazu aurreko ideiak KAUSAK eta ONDORIOAK zehaztuko dituen eskema batean:



MUTIKO ETA NESKATOEK ATSEDENERAKO, JOLASERAKO ETA KULTURAZ ETA ARTEEZ

GOZATZEKO DAUKATEN ESKUBIDEAREN ZAPALKETA

ONDORIOAK

4. Jarduera. Hazten laguntzen duten mezuak

- Azter ezazu kartel hau, bestelako aisia mota iraunkor bat errebindikatzen duen kanpaina bati dagokiona.



Gogoetarako galderak:

- Egizu ideia zaparrada bat kartelean ageri diren marrazki eta hitzetako bakoitzak iradokitzen dizunaren gainean.
- Egizu 10 bat lerroko idazlan bat karteleko mezuaren gainean.
- Saia zaitetz identifikatzen kanpainak adierazten dituen helburuetako hiru

5. Jarduera. Beste aukera batzuk aisialdirako

“Ekologistak ekinean” erakundeak badaramatza urte batzuk bestelako kontsumo aukerak eskaintzen, kostu ekonomikotik ez duten eta pertsonen arteko harremanak sustatzen dituzten jarduera kolektiboetan oinarrituak. Hona haien proposamenetako batzuk⁴.

- Hiriko baratzeak zaintzea.
- Antzez taldeak sortzea.
- Jolastoki bat antolatzea.
- Artisautza tailerretan parte hartzea.

- Boocrossing edo liburuak trukatzeko.
- Liburutegi txiki libreak.
- Bisita kulturalak hirian.
- Zineforumetan parte hartzea.

- Olinpiada bat antolatzea geure kirol gogokoekin.
- Haurtzaroko jolasak.
- Txangoak bizikletaz.
- Altxorraren bilaketako gynnkanak.

- Zertan daukate elkarren antza jarduera hauek guztiek?
- Asmatuko al zenituzke antzeko beste jarduera batzuk “post-it horia” betetzeko?
- Presta itzazue lauzpabost laguneko taldetan hauen antzeko beste jarduera batzuk eta antolatu ikastetxean, zeun irakasleen laguntzarekin, beste aisia mota baterako jokoak eta jarduerak

⁴ Produzizio Kolektiboko Ingenioak – Kontsumo aukerak – Ekologistak Ekinean (29/05/2017) <http://www.lettra.org/spip/spip.php?rubrique131>